

OSASUN ETA KONTSUMO
SAILAOsasun Sailburuordetza
Osasun Publikoko ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMOViceconsejería de Sanidad
Dirección de Salud Pública

Birziklatze-ikastaroak emateko baimena, belzteko zentroetan UV izpidun gailuak erabiltzen dituzten langileen prestakuntza berritzeko.

Urriaren 10eko 1002/2002 Errege Dekretuak, erradiazio ultramoreen bidez belzteko aparatuen salmenta eta erabilera arautzen duenak, ezartzen du UV izpidun aparatuak erabiltzeko zer segurtasun-, higiene- eta osasun-betekizun bete behar dituzten belzteko zentroek. Dekretu horren 8. artikuluan arautzen da jendeari UV izpiak ematen lan egiten dutenek beharrezko prestakuntza izan behar dutela, eta, era berean, aplikazio egokia ari dela egiten zaindu behar dutela.

Urriaren 28ko 263/2003 Dekretuak, erradiazio ultramoreen bidez belzteko jarduera arautzen duenak, ezartzen ditu izpi ultramoreak ematen dituzten gailuek zer segurtasun-mailak izan behar dituzten, eta tresna horiek erabiltzen dituzten langileek zer prestakuntza eduki behar duten. Horretaz gain, prestakuntzaren egiaztapenak bost urterako balioko duela ezartzen du 13.3. artikulua, eta epe hori igarotakoan berritu egin behar dela egiaztapena. Horretarako birziklatze ikastaro bat egin beharko da, zeinetan azken aurrerapen zientifikoek eta teknikoek berri eman beharko den; baimendutako enpresek edo erakundeek eman behar dute birziklatze ikastaroa.

Ikastaro hori gaindituz gero, hasierako ikastaroa gainditu zuten langileei emandako gaitasun-ziurtagiriak berritu egingo zaizkie.

I. eranskin gisa, eguneratze-ikastaroan zer gairi buruz jardun behar den erantsi da. Ziurtagiriak Estatu osorako balio duenez, eduki horiek autonomien artean erabakitakoaren arabera ezarri dira, eta aldatu egin daitezke, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioak zer arautzen duen kontuan hartuta.

Hasierako ikastaroa emateko baimendu ziren zentroek/erakundeek eman ditzakete prestakuntza eguneratzeko ikastaroak, baldin eta aurretik Osasun Publikoko Zuzendaritza honi hori adierazi (memoria teknikoa eta proposamena aurkeztuz).

Ikastaroak emateko arduradunek ikastaroen aktak egin behar dituzte edizio bakoitza amaitzen denean; hala, ikastaroa nork gainditu duen adierazi behar dute (II. Eranskina), eta gainditu dutela adierazten duen ziurtagiriak egin behar dituzte, III. Eranskin gisa erantsi den ereduari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 11

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO

Mercedes Estébanez Carrillo
OSASUN PUBLIKOKO ZUZENDARIA

I. ERANSKINA

Erradiazio ultramoreak aplikatuta artifizialki belzten duten aparatuak erabiltzen dituzten langileak birziklatzeko ikastaroaren edukiak.

- Artifizialki belzteko zentroetan erradiazio ultramoreak aplikatzeko estatuko eta autonomietako legeria aztertzea.
- Artifizialki belzteko instalazioen diseinu- eta mantentze-lanen berrikuntzak. Laneko arriskuen prebentzioa eta erradiazio ultramoreak aplikatzeak dituen arriskuak balioestea.

Ikastaroaren amaieran ikasleak zenbateko aprobetxamendua izan duen jakiteko eta balioesteko ariketa egingo da.

Denbora estimatua: 6 ordu (gutxi gorabehera 3 ordu bloke bakoitzeko).

III. ERANSKINA

**“Artifizialki belzteko jardueran erradiazio ultramoreak erabiltzeko birziklatze ikastaroa”
gainditu dela egiaztatzeko ziurtagiri-eredua.**

_____ (izena eta bi abizen) _____ jaunak/andreak,
_____ NAN-zenbakidunak, gainditu du _____ zentroak
antolatutako eta emandako “*Artifizialki belzteko jardueran erradiazio ultramoreak erabiltzeko
birziklatze ikastaroa*”. Ikastaroa _____ (lekua) izan da, egun hauetan: _____,
eta _____ orduko iraupena izan du.

Ziurtagiria _____ (lekua) _____ an egin da, 20XXeko _____ aren _____ (e)(a)n.

Ikastaroko arduradunaren sinadura

(ikastaroa eman duen zentroaren/erakundearen zigilua)